

BERRIGARA

7. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1996, azaroak 29

El Salvadorreko
dominiko
bergararra

Mikel Andueza

Autoberezi

FIAT *Alfa Romeo*

1995KO URTEKO KOTXEA

ANTIGUA AUZOA
ANTZUOLA

1996KO URTEKO KOTXEAK



- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

**ALTZARIAK
DEKORAZIOA**

ARROZTEGIA



San Juan, 1 (Barruti) • BERGARA • Telefonoa eta faxa: 76 54 91



VENTANAS SAN MIGUEL

*Ventanas San Miguelekin...
denean irabaziko duzu.*


Erosotasunean irabaziko duzu.

*Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.*

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

Ibargarai, 5 BERGARA ☎ 76 12 21



*Etonki gurea!
Denean irabaziko duzu.*

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
0570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

zuzendaria:

neko Azkarate

irredakzioa:

duardo Mendibil

Nikel Elkoroberezibar

itziber Azkondo

maketazioa:

neko Azkarate

publizitatea:

lex Azkarate

larpidetzak:

orka Elortza

testuen zuzenketak:

stepan Plazaola

Maripi Laskurain

lex Labaien

irredakzio kontseilua:

orka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

lex Labaien

komikiak:

Ritlor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

banaketa:

Txantxangorri taldea

tirada:

4.200 ale.

inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

copyright:

BERRIGARA

lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

IÑAKI UGARTEBURU

Kirol Zerbitzuko teknikaria

- Aurten ere Deba Garaiko herrien arteko Olinpiada antolatu duzue...

- Horrela da, bai. Abenduaren 26tik 30era jokatu da, 15 urtetik gorako gazteek parte hartu ahal izango dute. Taldeak 10-14 lagun bitartekoak izan beharko dira eta eskubaloia, waterpolo, atletismoa, saskibaloia eta areto futboleko probak izango dira Eskoriatzan, Arrasaten, Oñatin eta Bergaran. Izen-ematea (5.000 pezeta) abenduaren 11a baino lehen egin beharko da.

- Nolako partaidetza izan zen iaz?

- Iaz 16 taldek hartu zuten parte. Bergarako bi talde izan ziren eta garai-pena Mongatxurra taldeak lortu zuen. Aurten,



16 taldetik gora apuntatzen badira, Bergarari 3 talde dagozkie. Beraz, 16 talde baino gehiago baldin badaude, kanporaketak jokatu beharko dira herrietan.

- Zeintzuk izango dira sariak?

- Txapeldunek aste-bukaera baterako bidaiak eskuratuko dute eta bigarrenek kirol materiale-rako dirua.

“Herrien arteko bigarren olinpiada jokatu da Gabonetan, abenduaren 26tik 30era”

I T U R R I O N E T I K

Urteaga kalean hainbat konponketa egingo ditu Udalak

Urteaga kaleko bizilagunen eskakizunei erantzunez, Udaleko Gobernu Batzordeak San Antonio aldean konponketa batzuk egiteko erabakia hartu du.

Horrela, argiaren arazoa konpontzeko, Gobernu Batzordeak 800 mila pezetako gastua onartu du. Era berean, zebra-bidea margotu, espaloi berria egin eta barandila aldatzeko Diputazioarekin negoziatzeko konpromesua hartu du Udalak. San Antonioko gurutzan dagoen semaforoa aldatzeko eskaera ere egin zuten auzotarrek baina teknikoki bideraezina omen da, neurri horrek, Udalaren arabera, trafiko ilara luzeak sortuko lituzkeelako.

E S A N
D U T E

“Europar ere nabarituriko dugu EAJK eta PPK hitzartutako akordio ekonomikoaren eraginik, solaskide zuzenak izango baititu EAEk erabakigune garrantzitsuenetan. Eta hasiera hasieratik jakin ahal izango dugu zeintzu irizpide dituzten Bruselan honetaz edo hartaz, baita erabakitzeko (edo iritzia emateko bederen) aukerarik ere. Beraz, hitzarmen ororabidea zuzena delakoan nago. Jakina, ikusi egin behar zenbatekoa den, zehazki, hitzartutakoaren kopurua”


MARI KARMEN GALLASTEGI

Ekonomia irakaslea
ARGIA

“Arrasate ez da toki txarra, dexente saltzen dut hemen, Bergaran baino askoz ere gehiago, eta hori HIES Ekimenaren konpetentzia dudala. Martxa dago bai, herri honetan”

ANDER BERISTAIN

Kondoi banatzailea
ARRASATE PRESS

**EL PROFESOR CHIFLADO**

Barikua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**AVENTURAS EN LA CORTE DEL REY ARTURO**

Domeka: 11:30.

**MARY REILLY**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ **Jerry Lewis** aktore komiko ezagunak idatzi eta protagonizatutako filmean oinarritu da **Eddie Murphy** ezaguna. *Sherman (Murphy)* ospe haundiko kimika ikerlari eta maisua pisua galtzeko aukerak aztertzen ari da. Era berean zorte txarra dauka bere bizitza sentimentalarekin. Baina egoerari buelta emateko formularekin asmatuko du...

▼▼ **Michael Gottlieb**ek zuzendutako filme honetan fantasia izango da nagusi. Bere lagunekin beisbolean jolasten ari denean lurrikara bat izango da eta *Calvin Fuller* mutikoak (**Thomas Ian Nicholas**) beste denbora eta leku batetara, Ertaroko Ingalaterrara hain zuzen bidaiatuko du. Arturo Erregearekin batera Cameloteko erreinuaren alde lan egin beharko du...

▼▼ **Stephen Frears** zuzendari britaniarrak (*Abrete de orejas, Cafe irlandes*) **Robert Louis Stevenson**ek sortutako *Jekyll* doktorea eta *Mr. Hyder*en mitoaren ikuspegi berria landu du. *Mary Reilly* (**Julia Roberts**) dugu *Henry Jekyll* (**John Malkovich**) doktorearen zerbitzaria baina *Mr. Hyder*enganako erakarpen haundia sentitzen du.

Deiak

▼ **1968an** jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoan afaria abenduaren 14an. Izen-ematea 76 03 72 (Nerea Lazpiur, arratsalde) eta 76 53 12 (Etxagi) telefonoetan egin daiteke.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, abenduak 4, 18:30etan Seminarioko lokalean. Herriko odol emaleei parte hartzeko deia egiten zaie.

▼ **Manu Muniategi**ren marrazki erakusketa Donostiako DV arte galerian ikusgai abenduaren 15era arte.

▼ **Abdon Juaristiren** oleo erakusketa Bilboko Caledonia arte galerian zabalik asteartera arte, abenduak 3.

Ogia▼ **Domeka 1:** Konde.**FARMAZIAK**

- ▼ **Eguakitza 29:** Mozos/Irizar.
- ▼ **Zapatua 30:** Camacho/Amezua.
- ▼ **Domeka 1:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 2:** Puy.
- ▼ **Martitzena 3:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 4:** Estella.
- ▼ **Eguena 5:** Mozos.

**PINTURAS BERGARA S.L.**

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK

- APAINKETARAKO PINTURAK
- ERROTULOAK

Aranerrika, 32 behea BERGARA. Telefonoa eta faxa: 76 11 40

Antzerkia protagonista

Eguakitzean Tunantes del Norte eta zapatuan Txalo taldea

Agatha Christie idazlearen lanean oinarrituta, Txalo taldeak *Xagu tranpa* antzezlanaren eskeiniko du bihar zapatua gaueko 10 terdietan Novedadesen. Agatha Christie idazle ingelesak produkzio oparoa dauka eta bere misterio liburuek izugarriko arrakasta izan dute munduan zehar.

Zinean ere bere nobeletan oinarritutako filme aipagarriak egin dira: *Muerte en el Nilo*, *El espejo roto*, *Asesinato en el Orient Express* edo *Testigo de cargo*.

Antzinako kulturak, arkitektura edo ingelesaren ohiturak aztertu izan ditu Christiek ironiaz eta beti ere misterioz betetako trama baten bitartez. *Xagu tranpa* (The mousetrap) 1952. urtean idatzi zuen eta bere lanik ospetsuenetarikoak izan da. Londresen 44 urtez jarraian antzeztu da eta 8 milioi pertsona inguruk ikusi dutela kalkulatzen da.

Ramon Barea Txaloko zuzendariaren hitzetan, "obra hau misterio jolasa, denborapasa aktiboa litzateke eta fikziozko misterio bat argitzeko abalegina eskatzen dio ikusleari. Nik primeran pasa



Tunantes del Norte taldearen *Soo bitxo!!* lana ikus ahal izango da gaur, HIESaren Nazioarteko eguna, San Martin plazan.

dut pertsonaia bakoitzaren eta tramaren misterioari birak ematen eta lanaren amaierara arte ez dago ezer garbi".

Ikusleei eskeintzen zaien esfortzu aktibo hori saritzeko asmoz, hiltzailea nor den asmatzen dutenen artean bi pertsonarentzat Londreserako astebeteko bidaiari feryan zozketatuko da. Ikuskizunaren atsedenean hiltzailea nor den esateko aukera izango dute zozketan

parte hartu nahi dutenek.

Antzezlanean, Ane Garbain, Ramon Ibarra, Ramon Agirre, Maribi Arrieta, Xabier Agirre, Jone Irazabal eta Juan Luis Mendiaraz izango dira aktore lanetan. Txalo taldea lehengo Bederen-1 taldeetik sortu da. Bederen-1 taldearen lanetatik *Zu(t)gabe* (Aitzpea Goenaga), *Bazan garaia* (Chejov), *Jaques eta nagusia* (Milan Kundera) edo *Desioen pontxea* (Michael Ende)

aipatu daitezke. Sarrerak 800 pezeta baioko du.

Kale antzerkia gaur

Bestalde, Txapa Irratiak eta HIES Ekimena taldeak domekan ospatuko den IHESaren Nazioarteko Eguna dela eta, gaur eguakitzat mahai informatiboak jarriko dituzte Plazan eta jarraian Tunantes del Norte taldeak *Soo bitxo!!* kale antzerkiko lana eskeiniko du. Ondoren, giza katea egingo da herrian. Domekan, berriz, Txapa Irratian HIES Ekimeneko kideekin irratsaio berezia izango da gaueko 9etatik aurrera.

Txalo taldeak, Agatha Christieren nobela batean oinarritutako *Xagu tranpa* eskainiko du zapatuan

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Habiadura Haundiko tren

Berrigararen bitartez jakin dugu nola Bergarako HB tren horren aurka agertzen dan, baita ere, Angiozarko Batzarrak bat egitea mozio horrekin.

Ez da gaurkoa Angiozartik noiz edo noiz trenbidea egiteko "zurrumurua" izan dala. Orain 60-65 urte -ni mutikoa nintzala- esaten zan, nola Bilbo-Durango-Zabaleta mendia- ren azpitik -Angiozartik- Bergara gainerik Zumarragara egingo zala trenbide zabala. Orduan deitzen zan Norteko trenbidearekin bat egitea.

Zumarragatik Donostia-Irun-Frantzia aldera. Europa aldera Bilboko portuari eta bai Bizkaia eta Gipuzkoako industriarentzako ongarria izango zalako. Bilbo-Miranda de Ebro-Irun bide luzea garestia eta denbora galtzekoa dalako gaurko egunean teknika berriak ditu proiektu berriak. Nere ustez bur- ni bide berria eta tren berria izango litzateke Euskal Herriko progresoarene bidea. Ekolo- gia zainduz egiten dira bai autobiak (hor da- go Leizaran) bai trenbide berriak eta abar eta abar. Ekologia eta progresuak biak batera biar ditugu. Beste gauza bat da gauza horiek egiteko diru asko behar izatea.

ERROTA-BARRIKO PAULO

Ardanza eta Retegiren bisita

Ardanza eta Retegik Bergarako Mayce- ra egin zuten bisitaren inguruan, Langile Ko-

misiotatik honako hau adierazi nahi dugu:

Maycen oso momentu latzak izan ditu- gu, hauetan aipatutako bi politikoak ikusteko aukerarik egon ez delarik.

Oraingo honetan Maycera datoz, baina zergatik ez Bergarako beste enpresa batzu- etara? Kasu, Narvaiza, Algodonera edo Ta- vesara? Azken hauek urteak daramatzatela- rik soldata izoztuekin, espedienteekin eta eszedenteekin.

Estatu espainoleko eskumako gobernu- a babesteko inongo arazorik izan ez duten EAJko politikoak bertan parte hartuz. Langi- leen soldata izozten dituen aurrekontua onartu dute, eta lan merkaturako erreforma- ren bila dabilta, honen helburua langileen kanporaketa erraztea delarik.

Ez dute Euskal Herrian bizi dugun egoe- rarentzat irtenbide negoziaturik onartzen. Bi- tartean NATOren sarrerari baietza eman dio- te, euskaldun gehienek baztertzen duten arren.

Laburbilduz, langileen aurkako politika baten bozeramale dira. Politika honetan ira- bazle bakarrak enpresaria eta banketxeak dira. Hauek opor fiskalak dituzten bitartean, zerga gehienak langileok ordaintzen ditugu.

Honetaz gain gogoratu behar diegu Maycen gaur egun ebentual moduan 100 gazte inguruk lan egiten dutela, eta lojiko- a, produkzio fijoen kontratuak ere fijoak izatea litzateke.

Arrazoi hauek guztiak direla eta, Mayce- ko Langile Komizioak ez du bisita hau txalo- tzen.

MAYCEKO LANGILE KOMISIOAK

Goiko Estazioa botatzearen aurka

HBk ez du bere iritzia aldatu. Indar etxe- aren (lehenago gazteek okupatu zuten loka- la) sarrera guztiak ixtea proposatu zenean Hirigintza Batzordean, HB aurka azaldu zen. batetik jende ugari aterpe bezala erabiltzen zuelako, bestetik azkenean gazteen aurkako neurri bat zelako eta, azkenik, gastu haun- dia suposatzen zuelako (600 mila pezeta).

Orduan HBtik zera esan genuen: "Hori ez itxi eta zerbait egitekotan ruina egoeran dagoen estazio etxea bota". Gerora, gazte- ak sartu dira, ruina egoeratik askoz hobeto egotera pasatu da gazteak egindako lan apartagatik (joan zen egunean bota zuten, hau bai ruina). Egia da arau subsidiarioetan etxea botatzea aurrizkuten zela. HBk ez zituen hasierako onarpenean arauak onartu. Tri- partitoak arauetan zenbait aldaketa egin di- tu, beste gai batzutarako. Zergatik ez kasu honetan berdina egin, gaur egungo egoera kontutan hartuz, etxea zutik mantenduz? Ur- banizazioa egiten denean (bidegorria eta pasealekua) ikusiko da zer egin, edo zerga- tik ez etxea dagoenetan utzi?

Tripartitoak gazteen inguruan eskumako politika gogorra egiten du, autojestioa bul- tzatzen dutenen aurka, indar guztiak erant- zuten die. Dena beraien kontrolpean eduki behar dute, herritik sortzen den guztia, berai- en esku artetik ihes egiten ez badu zapaldu eta zapuztu egiten dute. Zer eskaintzen diezue Bergarako gazteei?

BERGARAKO HERRI BATASUNA

Tiira biraka



UNAI AZKARATE

Oskorri Aretxabaletan

Aretxabaletako Beinkeren 10. urteurrena ospatzeko, zapatuan Oskorriren emanaldia antolatu du Loramendi euskara elkarteak 22:30etan Aretxabaletako Kiroldegian. Kukubiltxok eta Kepa Junkerak ere jaialdian parte hartuko dute. Sarrerak, Jardunen edo Pol-Polen salgai.

Orkesta Azkoitian

Orkesta Sinfonikoak emanaldia eskeiniko du zapatuan 22:30etan Azkoitiako Baztartxo antzokian. Amaieran, Azpeitia, Azkoitia eta Zumaiako abesbatzen laguntzaz, *La mision* eskeiniko du.

HILDAKOAK

- Angela Rodrigo Garces**
Azaroak 23, 43 urte.
- Julia Imaz Bastarika**
Azaroak 23, 72 urte.
- Sabina Maiztegi Gantxegi**
Azaroak 23, 62 urte.
- Esteban Larrañaga Maortua**
Azaroak 24, 70 urte.
- Gregoria Aranburu Elgeta**
Azaroak 24, 101 urte.

JAIOTAKOAK

- Amaia Gallastegi Borreguero**
Azaroak 18.
- Jon Ander Mujika Silva**
Azaroak 20.
- Mikel Aranzabal Osinalde**
Azaroak 21.
- Jon Perez Guisado**
Azaroak 22.
- Joseba Anton Izquierdo**
Azaroak 23.

Lehendakariak MAYC eta TTT enpresak bisitatu zituen

Jose Antonio Ardanza Lehendakaria MAYC eta TTT lantegietan bisitari izan zen joan zen egunean.

Jabier Retegi industria sailburua, Roman Sudupe diputatu nagusia eta Victoriano Gallastegi alkatearen laguntzaz, Lehendakariak, 1942an sortu zenetik, MAYCek izandako ibilbidea ezagutu zuen Silvano Fumagalli Candyko (1992an MAYC erosi zuen taldea) presidentearen eta Fermin Mendizabal MAYCeko zuzendariaren eskutik. Mendizabalek elektragailuen sektoreen inportantzia azpimarratu zuen, Euskadin diren 20 enpresen negozio bolumena 150.000 milioi pezetakoa baita. 1993tik 1996ra bitartean MAYCen



Lehendakariak MAYC eta TTT lantegiak barrutik bisitatu zituen.

fakturazioa 9.000 milioi-koa izatetik 16.000 milioi-koa izatera pasa da. Gaur egun 558 langile (101 ebentualak dira) daude MAYCen. Datu ekonomikoaren azalpenaren ondoren, Ardanzak eta bere laguntzaileek garbigailu eta

lehorgailuen muntaia kateak eta lantegiko biltegi berriak bisitatu zituzten.

Jarraian, Lehendakaria eta bere laguntzaileak San Juaneko TTT lantegian izan ziren. Ardanzaren bisita aprobetxatuz, ekogenerazio makina inauguratu zen. Makina honen bitartez, elektrizitatea sortzen da prezio merkeagoan eta ingurugiroarekiko baldintzak hobetzen dira.

TTT taldean, Bergarako lantegiaz gain, Aretxabaletako TTT Ikan eta Kronitek, Zumarragako TTT Goiko eta Irungo Ion-tech biltzen dira. 1961ean Bergaran kokatutako enpresak 72 langile eta mila milioi inguruko fakturazioa dauka gaur egun.



FOTOKOPIADENDA • LIBURUDENDA

- FOTOKOPIAK KOLORETAN.
- FOTOKOPIAK ZURI-BELTZEAN.
- ENKUADERNAZIOAK.
- PLASTIFIKAZIOAK.
- PAPERGAIAK.

Bolu

- IDAZ-MAKINENTZAKO ZINTAK.
- IDAZ-MAKINEN KONPONKETA.
- KOPIAGAILUENTZAKO PAPERAK.
- FAXARENTZAKO PAPERAK.

Koldo Eleizalde, 1 (Bolu). ☎ 76 70 60

Musika Eskolako taldeen kontzertua

Udazken Kulturaleko programazioaren barruan, datorren egunean, abenduak 5, Musika Eskolako taldeek kontzertua eskeiniko dute arratsaldeko 7etatik aurrera Novedades aretoan.

Euskadiko txistulari txapelduna Antzuolan

Domekan, eguerdiko 12:30etan hasita, Garikoitz Mendizabal Euskadiko txistularien bakarkako txapeldunak emanaldia eskeiniko du Antzuolako zine aretoan. Mendizabalekin batera, Antzuolako Txistulari Taldea eta Musika Eskolako metal boskotea arituko dira.

Bergarako Senideak-ek manifestaziorako deia

Bergarako Senideak elkarteak, bihar zapatua, *Euskal presoak Euskal Herrira* lemapean, Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzeko deia egiten du. Manifestazioa 17:30etan hasiko da Aita Donosti plazatik eta Bergararik autobusak 4retan aterako dira.

Alargunen bazkaria abenduaren 8an

Alargunen elkarteak abenduaren 8rako urteroko bazkaria antolatu du. Abenduaren 5a baino lehen eman beharko da izena elkartearen bertan, 18:30etatik aurrera.

Plumilla erakusketa

Francisco Javier Centeno bergararrak plumillaz landutako marrazkien erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxean zapatutik abenduaren 8ra bitartean.



Osasun Zentroan beste hainbat espezialitate jartzeko eskakizuna egin zitzaion Azkunari.

Bergarako Osasun zentroko gela berriak inauguratu ziren

Azkuna osasun sailburuak inauguratu zituen eguakitzean

Itñaki Azkuna osasun sailburuak Bergarako Osasun Zentroan egindako berritze lanak inauguratu zituen astelehenean. 1977tik amaitu gabe zegoen zentroa haunditu eta berrizteko 75 milioi pezetako inbertsioa egin da eta Azkuna zein Victoriano Gallastegi alkatea oso pozik azaldu ziren zentroa berrizteko egin den esfortzuagatik, lehen mailako asistentziako azpiegituran aurrerakuntza haundia eman baita.

Bigarren pisua zabaltzean, Osasun Zentroaren zenbait sail bertara eraman ahal izan dira, horien artean liburutegia, aldagelak, bilera gela eta 11 kontsulta (19 dira guztira) esate baterako. Horrekin batera itxarongelak haunditu dira, unitate administratiboa sortu da gaur egun-

go beharrei egokitutako instalazioekin; harrera-lekua, itxarongelak eta asistentzia eremuak bereizi dira eta, era berean, errehabilitazio unitatea haunditu eta berritu da, gimnasio haundiagoa eta kontsulta espezifikoa lortuz.

Antolaketari dagokionez, lehen solairuan, harrera egiteko eremua, pediatria, errehabilitazio unitatea, larrialdiak eta emakumezkoaren aldea (ginekologia, obstetrizia, emagina, erditzeko prestakuntza) izango dira. Bigarren solairuan, berriz, medikuntza orokorreko aldea, espezialitateen aldea (kardiologia, zurgia, barne-medikuntza eta ginekologia) eta pertsonalaren aldea kokatuko dira aurrerantzean Bergarako Osasun Zentroan.

Pepelu

Ilepaindegia

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07
BERGARA

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Nazioarteko egoera aztergai Bergaran

Bergarako Komite Internazionalistak elkarteak hainbat ekitaldi antolatu ditu datozen egunetarako. Asteartean, abenduak 3, aurten Kubara joandako hainbat brigadisten hitzaldia izango da 19:30etan Kultur Etxean; abenduaren 10ean Mohamed Salem Daha Frente Polisarioaren ordezkariak Saharako egoeraren berri emango du Miguel Altuna Institutuko aretoan; nazioarteko gaietan aditua den Sabino



Cuadrak Zaireko egoera aztertuko du hilaren 12an ordu eta toki berean eta, azkenik, Luis Kondearena "Gepeto"k Mexikon izandako esperientzia azalduko du abenduaren 17an Kultur Etxean. Era berean, bideo emanaldiak izango dira Pol-Polen eta Nahikarin eta jardunaldiei amaiera emateko elkartasun jaia iragarri da abenduaren 20rako.

■ **Liburu eta Diskoen Azokarako prest**

Joan zen eguenean aukeztu ziren Udaletxean, Bergarako Udalak eta UNEDeko Historia Departamenduak bultzatutako "Ikerlan Saila" izenburuko liburu bilduma osatzeko falta ziren azken hiru liburuak. Luis Abajo kultura zinegotzia, Bizente Huizi bildumaren koordinazio lanak egin dituena eta azken hiru liburuen egileak izan ziren Pleno Aretoan. Hurrengo astebukaeran, Durangoko Liburu eta Diskoen Azokan jarriko dira salgai bilduma osatzen duten bederatzi liburuak,



Bergarako Udalak, hortarako, bertan jarriko duen postuan. Udalak bultzatu dituen beste hainbat argitalpen ere erakutsiko dira Durangoko azokan.

Gaztainerre eguna

Jardun elkarteak antolatuta, domeka honetan Gaztainerre eguna ospatuko da plazan. Iluntzean, danbolinean erretako gaztainak eta sagardoa banatuko dira. Jardunek herritarrei parte hartzeko deia luzatzen die.

Karta txapelketa

Bihar, zapatua, San Ana elkarteak, herriko elkarteen arteko tute eta mus txapelketetako finalak jokatu dira. Finalerdietan Gorla-Pertxa elkarte eta Artatse-Goxope neurketak jokatuko dira eta ondoren finala izango da.

Bergarako amona hil

Gregoria Aranburu Elgeta, Bergarako amona, domekan hil zen 101 urte zituela. 1895ko martxoaren 12an jaioa, Sebastian Azpeitiaren alargunak bizitzako azken urteak Mizpirualde Egoitzan eman ditu. Goian bego.

Jose Luis Garitanoren egoerak hobera egin du

Jose Luis Garitano bergararrak, Adegiko idazkarak, Galdakaoko eritetxean ingresaturik jarraitzen du azaroaren 15ean izandako istripuan (kotxe batek harrapatu egin zuen autopistan) jasandako zaurien ondorioz. Jose Luis Garitano oso egoera larrian izan da baina bere osasun egoerak hobera egin du azken orduetan.

Kontzertuak Jam aretoan

Wilko Johnsonen kontzertua izango da Jam aretoan gaur 11etan. Bihar, zapatua, *tecno* festa iragarri da eta domekan *blues* eta *boogie* jaialdia Alain Giroux eta Jean Louis Mahjunen eskutik.

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 **BERGARA**

ONENA

TINTATEGIA

Barrenkale, 29 **BERGARA**


Udaletxeko arkupeetan eman dute astea Goiko Estazioko etxeko gazteek

Joan zen eguenean

bota zuten Goiko Estazioko etxea okupatu zuten gazteek Udaletxeko arkupeetan izan dira aste osoan zehar. Motxila, saku eta guzti, gazte batzuk gau eta egun eman dute astea eta gazteentzako lokalak eskatzeko pankartak jarri dituzte.

Gai honen inguruan, Victoriano Gallastegi alkateak Berrigarari adierazi dio lokalak eskatzeko eskaera ofizialik ez dela jaso: "ostegunera arte, eskaera formalik ez da jaso Udalean. Gazte talde bhonek lokalak eskatu nahi baditu, pertsona konkretu baten izenean egin behar du, herriko beste edozein taldek egiten duen moduan. Hori gertatu artean ezin dezakegu ezer egin". Eskaera hori egiten bada, Udalak, beste edozein talderi jartzen dizkion baldintzak betetzea eskatuko lioke gazte taldeari: "Une honetan Udala ez dago lokalez sobran, baina hitz eginez gero, eta eskaera formala aurkeztuz gero, lokalak lor daitezke, baina baldintza batzuk bete behar du lituzkete lokala gestionatzerako orduan".

Orain dela bi urte itxi zen Gaztetxearen inguru-



Udaletxeko arkupeetan lokalak aldarrikatzeko egonaldia egin dute Goiko Estazioa okupatu zuten gazteek.

an ere berba egin digu alkateak: "Gaztetxea ez zen Udalarena, elizarena baizik, eta epaiketa egin ondoren elizari eman zitzaion arazoia. Orain dela urte batzuk, lehen kontribuzioko lokala zena gazteentzako uzteko asmoa zuen Udalak, baina orduan Gaztetxeak ez zuten hura hartu nahi izan".

Gazteen idazkia

Plazan dauden gazteek, bestalde, Goiko Estazioko etxean ekintza kul-

turalak gauzatu eta espresio gune bilakatzea nahi zutela adierazi dute Berrigarara bidalitako idazki batean. "Arrazoi berdinean botatzen duten bigarren etxea da, gazteok etxebizitzaren aurrean ditugun arazoak gehiago larrituz".

Udaletxeko arkupeetan amaiera jakinik gabeko egonaldia egingo dutela adierazten dute gazteek: "salaketa popular eta erreibindikatio bat egin nahi dugu, gazteok ditugun eskubideekin udala-

ren jarrera onartezina zaigulako".

Hutsik dauden lokalak okupatzen jarraituko dutela diote gazteek, "legeak eta botereak propietario eta espekuladoreak babesten dituen bitartean gazte askok ditugun beharrak atzera botatzen dituztelako, kale gorrian utziaz".

Bukatzeok, esan dezagun, gaur, ostirala, biltzekoak direla plazako gazteen ordezkariak eta Kultur taldeak, gazteria eta jaiak batzordeko ordezkariak.




LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxes: 76 20 29

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

Osasuna

Ultzerak

- Nola definituko zenuke ultzera?

- Lehenbizi urdaileko ultzera eta duodenoko ultzeraren arteko bereizketa egin behar da. Batzuetan biak batera ematen dira eta orduan *ultzera gastroduodenala* delakolari buruz arituko gara. Baina normalean bata edo bestea ematen da. Urdaileko ultzerak minbizia ekar dezake; duodenoko ultzera, ostera, ez da hain arriskutsua minbiziari dagokionean.


- Noiz agertzen da ultzera?

- Estresak, urdaileko azidoek, tabakoak edo elikadura eskasak ultzera eragiten zutela esaten zen lehen baina gaur egun, zentzu horretan, iraultza bat eman da. Ultzera emateko bi faktore ezinbestekoak direla ikusi da: batetik, garratzasuna eta, bestetik, *Helicobacter pylori* izeneko bakteriararen infekzioa.

- Zertan datza tratamendua?

- Garratzasuna kendu eta bakteriar akabatzeke botikak hartu beharko dira. Urdailak azido klorhi-

drikoa sortzen du eta ultzera daukatenean ohi baino azido klorhidriko gehiago sortzen dute. Elikadurak ez dauka zerikusirik horretan. Lehen ultzeradunei elikadura erreji-



PEDRO OTAZUA
(Liseri aparatuko medikua)

men gogorak agintzen zitzaizkien; orain, berriz, ez da horrelakorik egiten.

“Ultzera emateko bi faktore ezinbestekoak dira: garratzasuna eta *Helicobacter pylori* bakteriar”



Tabakoak edo elikadura eskasak ez dute ultzera ekartzen. ARTXIBOA

Botikak hartzearekin nahikoa da.

- Eta bakteriar nola agertzen da?

- Ezin da ziur esan baina badirudi elikagaien bitartez transmititzen dela. Dena den, bakteriar hori akabatuz gero, kasuen %1ean bakarrik agertzen da berriz *Helicobacter pylori* delakoa. Bestalde, bakteriar honen agerpena eta urdaileko ultzeraren arteko erlazioa aztertzen ari dira orain.

- Esaiguzu, zela egin da ultzeraren diagnostikoa?

- Endoskopiarekin. Sistema optikoa duten tubo batzuk sartzen zaizkio gaisoari eta barrua ikusten da. Horrela, ultzera dagoen ala ez, urdaileko ultzera ala duodenokoa den, urdailekoa bada gaiztoa den ala ez eta, azkenik, bakteriar eragindako ultzera den ikusi ahal izango dugu.

- Eta zein da jarraitu beharreko tratamendua?

- Ez dago guztiz zehaztuta eta pautak desberdinak daude. Nire kasuan behintzat 12 eguneko tratamendua agintzen diet ultzeradunei. Bakteriarrekin akabatu dugun ala ez frogatzeko endoskopia errepikatu edo arnasaren testa egin daiteke. Bestalde, ultzera gaiztoa den kasuetan operatu behar izaten da.

CAMACHO

**Drogeria
Usaindegia**

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1

IGARO


✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariunma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

“El Salvadorren gerra osteko egoeran daude, eta askotan gerra garaia baino gogorragoa izaten da”



Mikel Andueza

El Salvadorreko apaiz bergararra

32 urte zituenean Hegoamerikara abiatu zen familia, lagunak eta parrokia lagata. 14 eman ditu bertan eta egoera eta une gogorak ezagutu arren, bertako behartsuenei laguntzen ibili da. Hilabete inguru egon da Bergaran eta datorren asteazkenean, berriz ere El Salvadorre bueltatuko da. Estantzia, instituzioekin hiru garren mundurako proiektu berriak gestioatzeko aprobetxatu du.

Nola erabaki zenuen Hegoamerikara joatea?

- 1982. urtean, Gironako parrokia batean nengoela, Karitas-ek, laguntza talde bat eratu nahi zuen eta aukera interesgarria iruditu zitzaidan. Sei hilabete igarotzeko asmoz joan nintzen eta dagoeneko 14 urte egin ditut. Oraindik lan handia dago egiteko eta jarraitzea pentsatzen dut.

- Gaur egun, San Salvadorren izan

arren, beste hainbat herrialdetan egon zara lanean.

- Hegoamerikara heldu nintzenean, errefuxiatuekin lanean hasi nintzen. 1980. urtean gerra hasi eta askok El Salvadorretik Hondurasera ihes egin zuten. Gerra amaitu zenean, familia ugari, bizpahiru urtean, bertan geratu ziren. Honduras eta El Salvadorreko gobernuen arteko harremanak onak ez zirenez, Honduraseko ejerzitoak, presio eta

kontrol handia ezarri zuten jendearengan eta egoera oso latzak bizi behar izan zituzten. Gerrak ekarritako ondorioak gogorak izan arren, 8.000 pertsona nola antolatzen, alfabetatzen eta bizi ziren ikustea oso interesgarria iruditu zitzaidan. 85ean, Honduraseko ejerzitoa errefuxiatuen aurka altxatu zen. 60 zauritu inguru, hildakoak, hauen artean jaio berri bat, eta atxilotuak izan ziren. Ez zidaten bertan gelditzen

utzi eta Guatemala alde egin behar izan nuen. Ondoren, Nikaraguara joan eta handik, 1987an, San Salvadorrera heldu nintzen.

- Zein izan zen zure eginkizuna San Salvadorrera heltzean?

- Hasieran, lan soziala eta parrokiaren ardura hartu genuen. 1988an tailerrak antolatu genituen eta ondorioz, lan mota ezberdinak egiteko aukera zegoen. Harrez gero, tailerrak martxan dabilta eta jendeak era askotako gauzak egiten ikasi du. Tailerrak antolatzearen ondorioz, laguntzak lortzeko behar diren gestioak egiten ikasi nuen.

- Nondik lortzen dituzue dirulaguntzak eta zertarako erabiltzen dira?

- Estatu mailako eta Euskal Herriko instituzio ezberdinek, aurkezten ditugun proiektuetarako hainbat laguntza bideratu digute. Besteak beste, Bergara eta Antzuolako udaletatik jaso ditugu laguntzak. Gauza asko egin dira, baina gauza asko daude egiteko. Hamar urtetan, dagoeneko 300 proiektu baino gehiago bete ditugu eta momentuan ere lanean gabiltza. Eskaera zabala da eta proiektu berriak oraindik betetzeko daude. Orain dela hiru urte, etxebizitzaren proiektuarekin hasi ginen. Harrez gero, 200 etxe egin dira eta oraindik, beste asko egiteko daude. Nekazal guneetan behar handia dago. Jendea oso baldintza eskasetan bizi da. Gehienetan, adar, hosto eta plastiko artean lo egin behar izaten dute. Etxe txikiak egiten ditugu baina bizi baldintzak hobetzea lortzen da. Gerra prozesua

parean tokatu zitzaigun. 92an pakea sinatu zen eta borrokan ibilitakoak bergizarteratu behar izan genituen. Horretarako, Madrileko Gobernua gurekin harremanetan ipini zen eta proiektuaren dirua administratzeko eskatu zigun. Bestalde, abeltzantza, eskola, eta beste hainbat gairekin zerikusia duten proiektuak ere egiten dira.

- Finantzabideak lortzeko zein pausu eman behar izaten dira?

- Lehendabizi, komunitatearekin harremanetan jarri eta dituzten beharrak hartzen ditugu kontutan. Eskaera asko daude eta guk garrantzitsuenak aukeratzeko ditugu. Aukeraketa egin eta proiektua prestatu ondoren, instituzio ezberdine-

kin gestioa egiten dugu. Onartzen bada, martxan jartzen da.

- Orain arte, zenbat proiektu onartu dira?


- Aurkeztu diren gehienak, %90 gutxi gora behera. Hasieran aurkeztutako batzuk ez ziren onartu baina gaur egun, ahal den neurrian, gehienak lortzen ditugu. Talde txikia garela kontutan izan behar da eta ezin dugu nahi genukeen toki guztietara heldu.

- Momentuan, El Salvador, zein egoeratan dago?

- Gerra osteko egoera da. Gerra garaia oso latza da baina, askotan, gerra ondorengo konplexuagoa dela iruditzen zait. Gerra dagoen momentuan badakizu konfliktoa non dagoen baina ondo-


ren, arazoa edonon eta edonoiz sor daiteke. Une honetan egoera gogorra jasaten ari dira. Jendea ase gabe dago. Egoera ekonomikoa oso txarra da nahiz eta Salvadorreko makroekonomiak zenbaki positiboak adierazi. Ekonomia familiarra oso eskasa da. Soldata minimoa, hilabeteko 125-130 dolarretakoa da (18.000-20.000 pta). Armak erabiltzeko ohitura handia dago. Zergatik? Egoera ekonomikoa kontutan izanda eta alde bateko eta besteko borrokalari izandakoek, bergizarteratzeari buruz, inongo erantzunik ez jasotzean, armez baliatzen dira. Banda antolatuak ere sortzen dira.

- Delinkuentzia handia dago?



“Sei hilabeterako joan nintzen eta dagoeneko 14 urte egin ditut”

Mikel Anduezak
sortutako ADIC
erakundeak,
besteak beste,
Bergara eta
Antzuolako udalen
dirulaguntzak jaso
ditu.



**“Beharra
handiagoa denez,
nekazal gunetan
lan egiten dugu
batez ere”**

- Bi delinkuentzia mota bereiztuko nituzke. Alde batetik, egunerokoa, kalean edozein momentutan iku daitekeena. Edonon izaten dira lapurretak eta borrokak. Inor ez da ezertaz harritzen. San Salvadorren kalean zehar ibiltzea, oso arriskutsua da. Ahal duenak kotxea erabiltzen du, seguruagoa da. El Salvadorren, 6 milioi salvadortar dira, baina gerra garaian, horietako milioi bat Estatu Batuetara joan zen. Estatu Batuetan zegoen jendeak, hilabetero, 100 dolarretako dirulaguntza

bidaltzen zion familiari eta horrek, El Salvadorreko gobernuarentzat, egonkortasuna eta arazo ekonomikoak ekiditzea suposatzen zuen. Gerra amaitzeaz bat, Estatu Batuetatik jendea bidaltzen hasi ziren. Gehienbat arazoak zituen jendea izan zen, delinkuentek. Hauak sorterrira bueltatzean, ez dira lanean hasiko. Hiruzpalau urtetan, bizitza mota batetara ohitu dira eta ez dira aldatzen. Ondorioz “mara” deituriko bandak osatzen dituzte. Funtzionamendu mistiko berezia izaten dute. “Ma-

ra” bakoitza, lurralde zehatz batean finkatzen da eta hori errespetatu beharra dago. Eskoletan hasten dira jendea antolatzen. Armak lortzea oso erreza da eta horrek biolentzia handia eta gogorra sortarazten du. Izugarria da eta poliziak ezin du gauza handirik egin. Talde hauentzako, bizitzak ez du inolako baliorik. Familia osoak erahiltzen dituzte. Bestalde, nazioarte mailan antolatutako bandak ere badaude. Kotxeak lapurtu eta atzerrian saltzen dituzte. Drogarekin ere trafikitzen

dute. Orain boterean dagoen Arena alderdiko presidenteak, esaterako, dimititu egin behar izan zuen, droga trafikioan inplikaturik agertu zelako. Egoera honen aurrean, pobrezia gero eta handiagoa da, ez da aldatzen. El Salvadorreko populazio gehiena langabezian dago eta horrek ez du egoera hobetzen.

- Zein da Gobernuaren Kanpoko Erakundearen (G.K.E) eginkizuna?

- Gure eginkizuna ez da dauden arazoak konpontzea, egoera kritikotatik laguntza ematea baizik. Esaterako, etxebizitza beharrean badaude eta horrek diru kopuru bat suposatzen badu, zerbait ordaindu behar dute, gutxi bada ere. Etxe bat izatean, kredituak eskatzeko posibilitatea dute eta hori ere alternatiba bat da beste edozein produktu edo animalia erosteko. Bizitza antolatzeke era berri bat izan daiteke.

- Zenbat urte ditu ADIC erakundeak?

- Lagun katalan batek eta nik sortutako El Salvadorreko erakunde bat da 1987. urtean hasi ginen lanean baina izaera juridikoa, 1990ean lortu genuen. Bertako jendearekin egiten dugu lan. Orain, erakundearen, 16 lagun gara. Parrokia eta tailerrak herrian daude eta proiektuak nekazal gunetan egiten ditugu, eskaria handiagoa da eta egoera txarragoa.

**PINTXO eta BOKADILLOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92



**OILAGORRA
TABERNA**
Barrenkale, 21 BERGARA

- Arazoak izan dituzue atzerritarrek izate-agatik?

- Bai. Eliza munduan gabiltzanok arazoak izan ditugu. 1989an gerrilaren aldetik eraso izan genuen. Batzuk erahilak izan ziren. Ni berriz, atxilotu egin ninduten. Itaunketak zirela eta, egun osoan eduki ninduten kartzelan. Madriletik egin zen presioari ezker, ez zitzaidan ezer gertatu baina handik Guatemalara alde egin behar izan nuen urtebetez. Zorte handia izan nuen baina beste batzuk jipoiuak izan ziren. Egoera hartan mundu guztia susmagarria da eta ez da inongo frogarik behar norbait salatzeke.

- Zerk hunkitu zaitu gehien?

- 1985ean errefuxiatuen erahilketa oso gogorra izan zen. Momentu horretan ez nengoen bertan baina ondorioak bizi izan nituen. Harrez gero, kanpamenduetan sartzea arazo bat bihurtu zen. Baina momentu onak ere izan dira. Gauza asko ikasi ditut, lagunak ere egin ditut eta motibazioa ere handitu egin da. Urteak joan, urteak etorri, erantzunkizuna handiagoa da eta proiektuak lortzen ditugula ikustean, poz handia sentitzen da.

- Behar handienak non daude?

- Orokorrean, pobrezia handia egon arren, hiriko egoera nekazal gu-

Txikitatik, apaiz izateko bokazioa

11 urte zituela, Atarrabiako seminarioan, dominikoa izateko oinarriko heziketa bete zuen. 1966. urtetik 1974. urterarte, Valentzian, teologia eta filosofia ikasketak burutu zituen. Katalunian, Leonen eta Valentzian izan arren, Gironako parrokia batean finkatu zen, El Salvadorrera joan aurretik.

netakoa baino hobea da. Nekazal gunean bizi den jendea uztak ematen duenarekin bizi da eta uzta txarrak suertatzen badira ez dute jatekorik. Hirian aukera handiagoa dago. Jende asko, kalean eskatzen duenarekin bizi da, baldintza eskasetan bada ere. Gazte hasten dira lanean, 14-15 urterekin. Herrialde mailan, latinoamerikako behartsueneta-

rikoa Honduras da. Nikaragua ere, egoera txarrean dago.

- Nolako izaera dute salvadortarrek?

- Pertsona langileak eta zabalak direla esan da baina gerraren ondorioz, jendearen izaera asko aldatu da. Konfidantza falta handia dago eta jendea oso berekoa da. Behartsua izateak ez du esan nahi pertsonak ona izan

behar duenik. Denetarik dago. Lotsagabe asko dago eta kontuz ibili behar da. Bestalde, jende asko Nikaraguara joan da.

- Zein iritzi daukazu Batikanoari buruz?

- Batikanoa, elizaren presentzia ideologikoa, zehaztutako ildotik bidertzen saiatzen da. Apaiz asko, berriz, ez gatoz bat Batikanoaren pentsakerekin. Pastoral asko daude eta lan egiteko era ezberdinak, ondorioz tirabirak ere izaten dira. Batikanoak, gaur egun, planteamendu nahiko kontserbadorea dauka. Hirugarren munduari dagokionez, batzutan laguntzak izan dira baina bestetan ez dute ezer egin. Askotan Erromatik jasotzen ditugun erantzunak atzerakoiak dira.



1992an ateratako argazkian, El Salvadorreko kazetarien galderei erantzuten.


**A
R
R
A
N
O**

Taberna
Kruz Gallastegi BERGARA

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

Zerk jartzen zaitu sutan? Zerekin haserretzen zara?



Josue Lazkano

Ba eguraldi txarrak eta goizetik lan egin behar izateak. Erreboka ari naiz lanean eta goizetik joatea ez zait batere gustatzen.



Maria Orellana

Gaisotasunekin gaizki pasatzen dut. Izeba oso gaiso eduki dut baina orain nahiko pozik nago. Seme-alabak ere ondo portatzen dira.



Jesus Clemente

Eguraldi txarrak, lan egiteak..., gauza asko. Zaireko egoerak ere bai, jendearen artean desberdintasunak egoteak...



Elena Sanchez

Gaisotasunak besterik ez, beste gauzekin ez naiz haserretzen. Lana eta horrelakoak ondo eramaten ditut.



Nicasio Prieto

Eguraldi txarrak, Zairen bizi den egoerak..., horrelako gauzek beti afektatzen naute.



Maialen Orbegozo

Gezurrak, jende askok esaten ditu eta. Gezurrak eta faltsukeriak. Hitz politikak esan eta gero ezer ez.



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriadarako pinturak
- Paper margotuak
- Mocketak eta tapizatuak

Sugoi


**ERLOJUAK, ARTIKULO
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea
☎ 76 59 54 BERGARA

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50



Asteleheneko kontuak

Garai bateko aste egunak gaurkoekin parekatzen baditugu, bere nortasuna galduaz joan diren denborazko unitate tristemak direla ohartuko gara. Gaurkoak lehengoak baino pertsonalitate gutxiagokoak -aste egunak pertsonalitate izan badezakete- direla esaten ausartuko nintzateke.

Lehen, egun gehienak bereizten ziren zerbaitegatik. Osteguna, neska-lagunarekin (edo mutila) irtetzekoa zen. Hileko lehen ostirala, mezetara joan eta jaunartzeko egun berezia izaten zen; Larunbata iristen zenean, berriz, alkondara berria eta Trinketera. Igandea, baserritarra kalera jeisteko eguna izaten zen; kaleumeak, berriz, trajea eta igandetako erropa soinean. Astelehena, denetan aspergarriena; aldizkari bakarra argitaratzen zen, eta futbol partiduen berri zuzena izateko baino balio ez zuen.

Denbora joan ahala ostegunak galdu egin du sasoi batean zuen kutsu erromantikoa. Ostiraletako jaunartzea edo larunbatetako alkondara berriarena, bukatutzat eman behar ditugu. Igandek ere ez du lehen izan zezakeen xarma; baserritarrik ez da apenas geratzen eta igandeko erropak ere ez dira izaten armariotan. Astelehenak dira zerbait irabazi duten egun bakarrak. Orain, nahi beste aldizkari izateaz gain, igandeko golei buruzko ikuspuntu desberdinak kontrastatu ahal izateko, Arzalluz jaunak igandean esanak izaten ditugu eztabaidagai. Batzuk miretsi eta beste batzuk gorrotatzen duten gizon honek jaieguna erabiltzen du bere arerio politikoa astintzeko. Izugarritzko oihartzuna izaten dute bere diskurtsoen erretorika bereziak eta erasokorrak.

Rh-a dela edo Euskal Herrian ditugun judikatuta erdal-hitzuna dela, aste osoak eta hilabeteak ematen dituzte gure politiko, kazetari eta pentsalariak haren hitzei buelta ematen. Jarrai beza eskandalizatzen, astelehenari merezi zuen duintasuna emateaz gain, herritar askoren bizimodua pizten baitute bere esanek sortzen dituzten eztabaidek.

Iñazio ARREGI



Eman euskarari berea

Aste honetan nahiko iskanbila sortu ditu Arzalluzek joan zen asteen egin zituen deklarazioek. Justizia alorrean euskararen presentzia ia nulua da, eta hori ez dago ukatzerik. Euskal Autonomi Elkartearen plaza duten epaileen artean, 3 dira bakarrik epaiketa oso bat euskaraz egiteko gai direnak. Primeran!

Baina tamalez, ez da euskararen presentzia baxua nabaria den alor bakarra. Eguneroko errealitateak, instituzioetako euskararen erabilpena marjinala izaten jarraitzen duela erakusten digu.

Hala ere, azken urte hauetan martxan jarritako hizkuntza politika bere emaitzak ematen ari da. Baina tamalez, motz gelditu da. Hizkuntza politika honek indar berezia jarri du umeen euskalduntzean, baina oraindik EAEn umeen %42a dago D ereduan, %19 Nafarroan eta %8 Iparraldean.

Unibertsitatean ere arazo larria dugu Euskal Herrian. Ikasle askok ezin diote eutsi euskaraz ikasteko daukaten eskubideari.

Datu hauek aurrean izanik, argi ikusten da egoera soziolinguistikoa oraindik euskararen aurkakoa dela. EKB (Euskal Kulturaren Batzarrea) kezkatuta dago euskararen egoerarekin, eta kezka hori gizarte osoari helarazi nahi dio.

Kezka hori kaleratzeko, eta nolabait gu guztion kontzientzia pizteko, EKBk "Eman Euskarari Berea" lelopean kanpaina bat hasi berri du. Euskararen egoera salatzea eta Euskal Herriko instituzio politikoei euskararen normalizaziorako Plangintza Orokorra eskatzea da kanpaina honen funtsa.

Abenduaren 14an "Euskararen Normalizaziorako Plangintza Orokorra" lelopean manifestazio bat egingo da Bilbon. Lerro hauetatik manifestaziorako deia luzatu nahi dut Bergarako Akulu-AEK Euskaltegiaren izenean.

Ainhoa LETE

BILTOKI

dekorazioa

San Martin plaza z/g. ☎ 76 43 51.

sukalde eta bainuak

San Pedro z/g. ☎ 76 34 00.

elektragailuak

Barrenkalea, 20. ☎ 76 04 71.

ikus-entzutekoak

Barrenkalea, 6. ☎ 76 25 96.

■ **San Miguel-Pe elkarteak 50 urte**

San Miguel-Pe elkarteak bere urrezko eztaiak ospatuko ditu astebukaera honetan.

Gaur, barikua, 19:30etatik aurrera gaztainak eta sagardoa banatuko dira, **Musika**

Eskolako Haize Boskoteak alaituta. Zapatuan, berriz, goizeko 9etan diana izango da txistulari eta etxafleroekin, 11etan **San Migelera igoera** egingo da, 11:30etan **Aritzeta** abesbatzak lagundutako meza



izango dute hildako bazkideen omenez eta ondoren salda eta txorizoa banatuko dira. Eguerdiko ordubatean, berriz, elkarteko bazkide sortzaileei omenaldia eskeiniko zaie. Elkartea 1946ko irailaren 26an sortu zen (Pikuperen ondoren herriko elkarerik zaharrena da) eta bizirik dirauten sortzaileei (**Andres Agirre, Conrado Inza, Bonifacio Iraegi eta Donato Ormazabal**) aureskua eskeiniko die **Xamatzek**. Ondoren txikiteoa izango da, 14:30etan bazkaria eta 5etan bazkideen arteko tute eta mus txapelketak. Gaur egun San Miguel-Pek 160 bazkide (horietatik 60 kuotarik ordaintzen ez duten jubilatua dira) ditu. Guztiei zorionak!!

■ **Moda japoniarra Bergaran**

San Martinen estanpa otsailaren 1ean eta 2an Frontoian izango den ikuskizuneko prestakizunak hasi dira dagoeneko. Eskenatokian izango diren kantari, antzezle, dantzari eta abarrek (150 lagun inguru denera) duela aste batzuk ekin zioten entsaiuei **Valen Moñux** zuzendariaren esanetara. Era berean, herriko emakume talde bat lanean ari da, japonesen jantziak egiten. Argazkian agetzen diren emakumeek 75 bat jantzi eta horrez gain banderinak, estandarteak eta horrelakoak egin beharko dituzte datozen asteetan. Jantzi japoniarrak modan jarriko ote dira Bergaran?



ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09



igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.

Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98




■ 50 eta 25 urte ezkontuta

Candido Sanchez eta Mercedes Amo senar-emazteek (goian) ospakizun bikoitza izango dute astebukaeran. Batetik Candidok eta Mercedesek ezkontu zireneko urrezko eztaiak ospatuko dituzte eta bestalde Vicente Sanchez euren semeak eta



Maria Isabel Cantero azken honen emazteak zilarrezko eztaiak ere zelebratuko dituzte. Mercedes eta Candido 1946ko azaroaren 9an ezkontu ziren Pancorbon, Burgosen, eta 30 urtetik gora daramatzate Bergaran. Vicente eta Maria Isabelek, beriz, euren ospakizuna zertxobait aurreratu dute, urtarrilean beteko bait dituzte zilarrezko eztaiak. Domekan meza izango dute eta jarraian bazkaria familiarrekin batera. Zorionak laurei!!

Zertan dihardute ba?



Iñaki Sanjose

bergararrak beste lau urtez Gipuzkoako Futbol Federazioko zuzendaritza batzordean jarraituko du. Astelehenean izandako hauteskundeetan Juan Luis Larrea orainarteko presidentearn kandidatura aurkeztu zen bakarrik. Iñaki Sanjosek Federazioko futbol eskola eta instalazioen arduraren izango du. Guztira 11 lagun izango dira zuzendaritza batzordean, tartean Juan Luis Mardaras Eibarreko presidente eta Bergarako Euskadiko Kutxako langilea. Sanjose BKEko presidente izan zen 1984tik 88ra bitartean.



HAIZETEL
Telefonia mobila

Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68

ZUBIETA
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterroka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Simon Iburguren

Itsasondokoa izan arren, duela hamasei urte, Bidekurutzeta kalean dagoen "Iburguren pentsuak" dendan hasi zen lanean. Goizetan dendan lan egiten du eta arratsaldetan, baserriz baserri hainbat produktu banatzen ibiltzen da.

- Nolako produktuak saltzen dituzu?

- Janariak, ongariak, belar hilgarriak, marrutz-hilgarriak, landareak, baserriko tresnak eta sendagaiak.

- Nork erosten ditu?

- Gehienak baserritarrak dira baina kaleko jendeak ere bai.

- Animaliarik saltzen dituzu?

- Bai. Oilaskoak eta oilandak.

- Gehien atsegin duzun animalia?

Zaldia.

- Zenbat urte ditu dendak?

- 36.

- Afiziorik?

- Zaldian ibiltzea.


- Urteko egunik gorrotagarriena?

- Gabonak. Faltsuak direla

iruditzen zait.

- Astebukaerarako planik onena?

- Menditik zehar zaldian ibiltzea.



"Urteko egunik gorrotagarrienak Gabonak dira, faltsuak iruditzen zaizkit. Zaldian ibiltzea gustatzen zait eta irla bakarti batetara, laguna, zaldia eta irratia eramango nituzke. Instinto Basico da ikusi dudana azken pelikula"

- Gehien atsegin duzun musika?
- Trikitia. Noizean behin klasikoa ere entzuten dut.

- Esaera bat.

- Gaur egin dezakezuna ez utzi biharko.

- Gustoko duzun izen bat.

- Simon.

- Euskal pertsonaia.

- Abraham Olano.

- TB ala irratia?

- Ez daukat TB ikusteko denborarik. Lanean irratia entzuten dut.

- Irrati saiorik gustokoena?

- Euskadi Irratiko arratsaldeko programazioa.

- Ikusi duzun azken pelikula.

- Ez dut pelikularik ikusten.

Azkena Instinto Basico izan zen.

- Zer eramango zenuke irla bakarti batetara?

- Laguna, zaldia eta irratia.

- Zergatik egingo zenuke garrasi?

- Ez daukat ohiturarik. Agian, katastrofe baten aurrean.

- Atzera jaioko bazina...

- Animalien mundua ikertzen lan egingo nuke.

- Real ala Athletic zalea?

- Ez daukat afizio handirik baina Realekoa naiz.

- Mezatarra joaten zara?

Ez.

- Zein opari jasoko zenuke gustora?

- Bidaia bat. Lanagaitik gutxi bidaiatzen dut.

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 beheka ☎ 76 21 80-76 06 37

KONDE




Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

POL-POL

Taberna

☎ 76 07 78



ETXEBIZITZA

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 76 52 90.

Pisua salgai Frontoian.
160 m2. Banatzeko auke-
ra, 28 milioi. ☎ 76 24 42.

Pisua alokairuan Antzuo-
lan. ☎ 76 21 06.

Garajea (2 plaza) salgai
Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Kontsultarako lokala alo-
kairuan. ☎ 76 07 84.

Garajea alokairuan San
Lorentzon. ☎ 76 18 01.

Pisua salgai Aranerrekan.
☎ 70 82 90.

Pisua salgai Martokuan.
☎ 76 59 96.

Pisua alokatuko genuke
Bergaran. Urjentea.
☎ 78 26 52 (Arantzazu).

Garajea saldu edo alokai-
ruan jarriko nuke Burdiña-
ten. ☎ 76 40 03.

Kontsultarako gelak
alokairuan jartzen ditut Kol-
do Eleizalden, Bolun.
☎ 76 58 91.

Logela bat alokatuko nu-
ke. ☎ 76 03 53.

Pisua alokairuan hartuko
nuke. ☎ 76 50 58.

Pisua alokairuan Matxiate-
gin. ☎ 76 11 64.

Osintxun buhardilla sal-
gai. ☎ 76 15 36.

DENETARIK

Peugeot 505 kotxea (SS-
S) salgai. ☎ 76 30 01.

Taberna alokairuan herri
erdian. ☎ 907 45 57 22.

Neumatiko eta llantak
salgai, 185/60 R 14 (Golf
III). 25.000. ☎ 76 31 16.

Fiat Tempra 1.400 SX
kotxea (SS-AL) salgai.
☎ 77 06 48 (iñaki).

Pultsera bat agertu da,
Jose Ramon 14-3-55 ins-
kripzioarekin. Udaltzaingoa.

Opel Astra kotxea (SS-
AN) salgai. Egoera onean.
☎ 76 48 47.

Gasteizera joan-etorria
(8-17.00) egiteko kotxea
behar dut. ☎ 76 15 76.

Taberna traspasatzen da
Antzuolan. ☎ 76 01 95.

Montesa Cota 348 Trial
motorra salgai. ☎ 76 61 05.

Negutegia salgai. 2.000
m2. ☎ 17 51 05.

2. eskuko motorra erosiko
nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

Irrati kontroleko abioia
salgai. ☎ 76 51 94.

Kotxe teledirijitua salgai.
☎ 76 04 63.

Pultsera bat agertu zen
barikuan haur liburutegian.
☎ 77 91 62.

Taxi plaza eskualdatuko
nuke. ☎ 76 44 04.

LANA

OHO klaseak ematen ditut.
☎ 76 10 17 (Rosa).

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Etxeko lanak egingo ni-
tuzke. ☎ 76 52 80 (Dorleta).

Neska batek etxeko lanak
egin edo haurrak zainduko
lituzke. ☎ 76 64 60.

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak
ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut
(orduka). ☎ 76 48 39.

Haurrak edo helduak
zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

Ingeles Filolojian lizen-
tziatua, klaseak emango
nituzke. ☎ 76 41 31.

Neska frantses batek
frantseseko klaseak ema-
ten ditu. ☎ 76 27 16.

Majisteritzan diploma-
tutako neska batek haurrak
zaindu edo klaseak eman-
go lituzke. ☎ 76 48 53.

Haurrak zaindu edo etxe-
ko lanak egingo nituzke.
☎ 76 31 96.

Lizentziatuak BBB eta
UBI klaseak ematen ditu
Bolun. ☎ 76 70 40.

Neska bat eskeintzen da
haurrak zaindu edo etxeko
lanak egiteko.
☎ 76 57 01.

J.M. IZAGIRRE**Igeltseritza**

**Era
guztietako
igeltseritza
lanak**

Loidi Baserria ANGIOZAR
☎ 76 56 86

BERGARA

MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxes: 76 04 77

*Paper pintatuak - Pinturak***A. ZANGITU**


☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

**TABERNA
ZAHARRA***Jatetxea*

bazkari eta
afariak

Tfnoa: 76 21 21
ANGIOZAR

BONOFOTOA



Jose Mari Jauregi

Jose Mari Jauregi jaso du oraingo honetan BONOFOTOko saria, orain dela bi aste egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen Ruiz de Aldaren semeen lantegian garai batean zer egiten zen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **irina** zen.

Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Jose Mari Jauregi**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

Bergarako zein plazatan aurki dezakegu ezkerreko iturria eta zein auzotan eskumakoa?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

1	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	A ZE FLAXA ETXAGI	21	7	35	8
2.	ERROTAGAIN	16	7	21	10
3.	JAUJA OH ZEREZOS	14	7	28	19
4.	BAR CANALEJAS	13	6	22	16
5.	BILDURBAREK OPEL/LAM	13	7	28	24
6.	OGIZUN	9	6	18	23
7.	ARLOTEAK OILAGORRA	7	6	24	17
8.	MADURA INDUSTRIAS GOL	7	7	12	15
9.	AZPEITXI JATETXEA	6	6	22	19
10.	MONGATXURRA	6	6	19	24
11.	UFALA	5	7	20	30
12.	ORTZI	4	6	7	14
13.	PAGOMENDI	0	7	8	37

2	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	ETXAGI	15	6	23	17
2.	KAYAK OS JARDINEIROS	15	7	31	14
3.	ARTUSAMAK BERGATRANS	15	7	30	18
4.	UVE BIKOITZA JAM	13	6	15	17
5.	LA JUVE	10	7	18	14
6.	AGIRREBEÑA JATETXEA	9	6	17	15
7.	SOROPOTROAK	9	6	19	16
8.	EZINLEIKE	8	6	15	15
9.	HALTZARI	8	7	21	20
10.	AGIÑASPI	7	7	14	28
11.	ERI	6	4	14	18
12.	INDARGORRI	4	5	3	10
13.	AUTOBEREZI	0	6	11	27

3	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	GUADALEST	15	7	27	16
2.	MOSKIS	15	6	28	13
3.	PJS	14	7	22	14
4.	FAC	13	7	22	17
5.	XIPIRON	13	6	19	11
6.	JAKINA PATXARAN TEAM	13	7	23	25
7.	IGANDEKOAK	9	6	17	23
8.	NEKROFIKOS	9	5	16	9
9.	NAHIKARI HOOLIGANS	9	6	20	21
10.	EH BITERRAK	7	6	12	20
11.	MRW	1	6	11	21
12.	ARI ARI	0	5	6	22
13.	CONSTRUCCIONES BERGARA	0	6	10	27

4	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MANITOU	21	7	49	9
2.	ARBE KIROLAK	18	7	44	21
3.	OSINTXU	16	7	26	14
4.	ETENGABE	15	7	30	13
5.	SLO	10	7	24	30
6.	MATXAKATEGI	10	7	14	13
7.	PANORAMIX	9	7	23	31
8.	KOMANDO PIPERRAK	9	7	18	22
9.	AMILOTX	8	7	14	17
10.	PITTIXAK	7	7	20	21
11.	XURRUPAK	6	7	13	27
12.	ALDOKA MALDOKA	5	7	17	30
13.	POLIDEPORTIVO TABERNA	4	7	12	36
14.	PATA NEGRA	3	7	13	45

Jokoz kanpo



Pedro Morcillo

SLO

ZER MODUZ ZOAZTE TXAPELKETAN?

Ondo gozuela esan daiteke, egunez-egun hobetzen...

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena, daukagun teknika eta txarrena gaizki jokatzen dugunean.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Ez.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Ondoen igandeetan eguerdiko 12etan.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain.

JOKALARIRIK ONENA?

Javi Cambronell.

SARTU DUZUEN GOLEADARIK HANDIENA?

8 eta 4 Pata Negrari.

ETA JASATAKOA?

9 eta 2 galdu dugu Arbe Kirolak taldearen kontra.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Sailkapenaren goialdean, erdialdetik aurrera behintzat.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Mijatovic.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Carl Lewis.

EUSKAL HERRIKOAK?

Jose Mari Bakero.

JATEKO PLATER BAT?

Migak.

■ EMAITZAK

OGIZUN-BAR CANALEJAS	2-5
JAUJA OH ZEREZOS-ERROTAGAIN	0-0
BILDURBAREK OPEL/LAM-UFALA	5-2
PAGOMENDI-A ZE FLAXA	2-7
MONGATXURRA-AZPEITXI JATETXEA	0-8
ARLOTEAK-MADURA INDUSTRIAS GOL	3-3
AGIÑASPI-LA JUVE	1-9
KAYAK OS JARDINEIROS-ARTUSAMAK BERGATRANS	5-3
EZINLEIKE-HALTZARI	3-3
CONSTRUCCIONES BERGARA-TXIPIRON	0-4
IGANDEKOAK-MRW	2-1
EH BITERRAK-MOSKIS	3-6
GUADALEST-PJS	2-1
PATXARAN TEAM-FAC	2-4
PITTIXAK-AMILOTX	1-1
OSINTXU-ETENGABE	1-3
MANITOU-XURRUPAK	7-1
SLO-PATA NEGRA	8-4
PANORAMIX-MATXAKATEGI	1-2
ARBE KIROLAK-POLIDEPORTIVO TABERNA	6-1
KOMANDO PIPERRAK-ALDOKA MALDOKA	1-3

■ PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00:	ARBE KIROLAK-AMILOTX	• SLO
10:00:	SLO-XURRUPAK	• MATXAKATEGI
11:00:	POLIDEPORTIVO-MATXAKATEGI	• XURRUPAK

Zapatuan kanpoan

09:00:	AUTOBEREZI-AGIRREBEÑA	• SOROPOTROAK
10:00:	SOROPOTROAK-AGIÑASPI	• UVE BIKOITZA JAM
11:00:	UVE BIKOITZA JAM-ERI	• AGIÑASPI

Domekan barruan

09:00:	ARI ARI-TXIPIRON	• EH BITERRAK
10:00:	EH BITERRAK-MRW	• IGANDEKOAK
11:00:	IGANDEKOAK-GUADALEST	• MRW
16:00:	PATXARAN TEAM-NEKROFIKOS	• NAHIKARI H.
17:00:	NAHIKARI HOOLIGANS-PJS	• C. BERGARA
18:00:	CONSTRUCCIONES BERGARA-MOSKIS	• OSINTXU
19:00:	OSINTXU-MANITOU	• MOSKIS
20:00:	KOMANDO PIPERRAK-ETENGABE	• MANITOU

Domekan kanpoan

09:00:	OGIZUN-PAGOMENDI	• MONGATXURRA
10:00:	MONGATXURRA-BAR CANALEJAS	• OH ZEREZOS
11:00:	JAUJA OH ZEREZOS-A ZE FLAXA	• BAR CANALEJAS
16:00:	ORTZI-MADURA INDUSTRIAS GOL	• ARLOTEAK
17:00:	ARLOTEAK OLLAGORRA-AZPEITXI	• BILDURBAREK
18:00:	BILDURBAREK-ERROTAGAIN	• AZPEITXI JATETXEA

517 haur Eskola Kirolean

Kirolak dakarren onuraz asko hitz egin da azken urteetan eta gero eta gehiago dira aisialdian kirola egiten dutenak. Haurren heziketan ere kirolak gero eta garrantzia handiagoa du. Izan ere, Udalaren, Diputazioaren, eta herriko ikastetxe eta kirol elkarten artean haurrek eskola orduetatik kanpo kirola egin dezaten Eskola Kirola jarduera antolatzen dute.

Lehenengo mailatik DBHko 2. mailara arte hainbat kirol egiteko aukera dute. Adin gutxiko ikasleek derrigorrez urtean zehar hainbat kirol egin behar dituzte; 12 urtetik gorakoek, berriz, kirol bat aukeratu behar dute.

Astean zehar ikastetxean bertan entrenamenduak egiten dituzte eta asteburuan beste ikastetxe batzuen aurka jokatzen dute. Bergara, An-



Futbola da haurrek gehien aukeratzen duten kirola.

tzuola eta Elgetako ikastetxeen arteko txapelketak jokatzen dituzte 12 urtetik beherako ikasleek eta nagusiagoek Deba bailarako ikastetxeen aurka neurtzen dituzte indarrak. Eskubaloia, saskibaloia eta futbola dira aukeran dituzten taldeko kirolak eta banakako-

ak, berriz, atletismoa, mendi irteerak, piraguis-moa, pilota, txirrindularitza eta igeriketa dira.

Futbol talde gehiegi

Aukeratutako kirolen artean futbola da neska eta mutilen artean kirolirik arrakastatsuen eta ho-

rrek arazoak sortzen dizkie antolatzaileei. *"Joan zen urtetik bona futbol taldeak gebitu egin dira eta hori beste kirol batzuentzat kaltegarria da. Ipintzan ez dago talde guztientzat lekurik eta beste kirolean jendea apuntatzen ez denez, ez dakit zer egingo dugun. Eskubaloian mutiletan ez da talderik irten eta arazo honi irtenbideren bat aurkitu behar diogu"* adierazi digu Begoña Payas Udal Kirol Zerbitzuko teknikariak.

Aranzadi ikastolako 290 ikaslek parte hartzen dute Eskola Kirolean, Mariaren Lagundiko 164 ikaslek, San Martineko 36k eta Miguel Altuna ikastetxeko 27k. Eskola kirolak ikasturteak irauten duen bitartean jarraituko du. Urte osorako 2.000 pta.ko kuota ordaintzen du ikasle bakoitzak.



Nerea Goenaga. 8 urte. Aranzadi ikastola.

"Gehien gustatzen zaidan kirola futbola da, baina beste kirol batzuk ere egiten ditut. Ez naiz nekatzen eta oso ondo pasatzen dut. Txarrak gara eta partidu asko galtzen ditugu. Mutilen aurka ere jokatzen dugu eta asko josten dute".



Oier Peña. 9 urte. Antzuolako eskola.

"Bergarakoen kontra batzuetan irabazi eta beste batzuetan galdu egiten dugu, baina gehiago irabazi. Gehien gustatzen zaidan kirola txirrindularitza da. Partiduak goiz direnean asko nekatzen naiz, lo gutxi egiten dudalako".



Daniel Encabo. 9 urte. San Martin de Agirre.

"Oso ondo pasatzen dugu kirola egiten eta ez naiz batere nekatzen. Futbola da gehien gustatzen zaidan kirola. Partidu asko berdindu ditugun arren, onenak gara. Saskibaloia eta eskubaloian ere jokatzen dut".



Jon Larrañaga. 8 urte. Mariaren Lagundia.

"Kirola egiten ez naiz batere nekatzen eta gutxitan egiten dudan arren, gehien gustatzen zaidan kirola pelota da. Futboleant eta eskubaloian ere jokatzen dut eta partidu asko irabazi ditugu onak garelako".

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Arrasate**

2. mailako jubenilak.
Zapatua. 15:30. Agorrosin.

◆ **Bergara-Beti Ona**

Lehen mailako kadeteak.
Domeka. 11:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Urki B**

2. mailako kadeteak.
Domeka. 10:00. Ipintza.

◆ **Bergara-Lizardi**

Emakumezkoak.
Zapatua. 17:15. Ipintza.

SASKIBALOA

◆ **Bergara-English School**

Senior neskek.
Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Etxadi**

Junior mutilak.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Beasain**

Kadete neskek.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

ESKUBALOA

◆ **Bergara-Zarautz**

Senior mutilak.
Zapatua. 19:00. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Ordizia**

Kadete mutilak.
Zapatua. 17:30. Kiroldegia.

◆ **Bergara-Zarautz**

Jubenil neskek.
Zapatua. 12:15. Kiroldegia.

PILOTA

◆ **Baqué Txapelketa**

Kadete eta jubenil mailako pilota partiduak. Final erdiak. Martitzena eta eguena. 19:00. Pilotalekua. Iñigo Martin bergararrak 18 eta 17 galdu zuen final laurdenetan Altunaren kontra. Bergararrak txapelketa polita egin du.

Jaime Martin

Espainiako karate txapelduna

Jaime Martinek kadete mailako karate Kyokushinkai Espainiako katen txapelketa irabazi zuen asteburuan Valentzian. Hori gutxi balitz, Iker Gonzalez maila berean 2. izan zen eta Gorka Gonzalez, jubenil mailan 2. geratu zen. Hirurek, Bolu gimnasioan entrenatzen dute eta Berrigarak txapelduna elkarrizketatu du.

- **Zenbat urte Kyokushinkai egiten?**

- Aurten 10 urte egingo ditut. Lagunekin batera hasi nintzen, eurek laga egin zuten eta nik jarraitu egin dut.

- **Asko entrenatzen duzue?**

- Astero 3 edo 4 ordu sartzen ditugu. Halere, badago ordu gehiago sartzen duenik.

- **Zelakoa da kata txapelketa?**

- Zaila da azaltzea, baina katak aurretik zehaztutako mugimenduak dira eta arerio imaginario baten aurka borrokatzen dugu. Esku eta hankekin, eraso eta defentsa mugimenduak egiten ditugu. Txapelketa aurretik kata batzuk lantzen ditugu eta txapelketa egunean kata bat bakarrik egin behar dugu. Kadete mailan ez dugu borrokarik egiten, borrokak 16 urtetik gora egin daitezke.

- **Zeintzuk izan ziren arerio nagusiak?**

- Bolu gimnasioako ki-deak izan ziren nire areriorik gogorrenak, maila oso ona eman baikenuen.

- **Ze berezitasun du Kyokushinkai karateak?**

- Kyokushinkaia oso gogorra da; beste karate mota batzuetan kolpeak markatu egiten dira, baina Kyokushinkain borroketan jo egin behar da eta irabazten duenak K.O.ra irabazten du.

- **Aurki borrokan arituko zarenez, beldurrik baduzu?**

- Lehen bai, baina orain ez. Lagun bat hasi da borroketan eta esperientzia polita dela esan dit. Hori ikusirik, gogo handia daukat hasteko.

- **Beste kirolen bat egiten al duzu?**

- Futbola gustazen zaidan arren, Kyokushinkain oso gustora nabil eta ez daukat beste kirolik egiteko gogorik.

- **Lesiorik izan duzu?**

- Ez, futbola eta horrelakoak arriskutsuagoak dira. Futboleant dabiltzan lagunak beti daukate zerbait. Nik ez dut inoiz lesiorik izan.

- **Karatean zer lortzea espero duzu?**

- Gerriko beltza. Orain marroia marra batekin daukat eta hurrengo beltza izango litzateke. Hori lortzeko 5 eguneko azterketa gainditu behar da eta oso zaila da.



Ezkerretik hasita, Gorka Gonzalez, Jaime Martin eta Iker Gonzalez.

“Kirol oso gogorra izan arren, orain arte ez dut inoiz lesiorik izan”



Argazkia: Isabel Gallastegi

San Pedroko haur abesbatza

Orain dela 40 urte inguruko argazkia duzue goikoa. Bertan agertzen direnek San Pedroko haur abesbatza osatzen zuten orduan eta inguruko herrietan izaten ziren jaialdietan parte hartzeko aukera zeukaten. Maila oneko abesbatza zen San Pedroko korua eta behin baino gehiagotan saritua izan zen.

Aste honetako erretratu Donostian aterata dago, Arte Ederretako antzerki aretoaren ondoan hain zuzen ere. Koruko kideak jaialdi batean parte hartzera joan ziren egun hartan. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Atzean: Ignacio Azkarate, Josu Mujika, Jose Luis Irizar, Imanol Agirrezabal, Francisco Lonbide, Marino Basterra maisua, Ramon Agirrezabal, Nikomedes Larrañaga, Jesus Mari Larrañaga Gallastegi eta Jesus Mari Larrañaga Telleria.

Aurrerago: Ignacio Irizar, Luis Mari Basterra, Genaro Lekuona, Antonio Iturbe, Luis Casatorre, Angel Azkarate eta Jose Ramon Aiastui.

Makurtuta: Felix Garitano, ezezaguna, Luis Mari Belastegi eta Jose Cruz Gallastegi.

Industria hornikuntzak **U** Industriaren alde
UNIFE

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga
JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerreka, 1 ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA



Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5 ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7 ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3 ☎ 76 14 12

Bedelkarreko harategiak



Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA



Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9 ☎ 76 08 68

Amaia eta Ion Mirena



San Pedro, 24 ☎ 76 12 23

Iosu eta Karmentxu



Zubiurre, 23 ☎ 76 28 76

LETURIA HARATEGIAK

LAZPIUR






Jabier Lazpiur. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2 ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargal, 7 ☎ 76 00 45

ATEZ ATEKO ENPRESETAKO PAKETERIAN ESPEZIALISTAK



BERGARA (GIPUZKOA)
San Juan Erreka. Elgetara bidea.
Tfnor: 76 36 42 - Faxa: 76 54 25.



GUPUZCOANA
Paketien garrantzia eta benetate